

# Berrigara



## San Martzial

Letaniaren ostean,  
erromeria domekan

**RAMON BASTIDA**


**xey**

SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58







Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.  
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAUEK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.  
BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.  
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.  
HORRELA KOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**

*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*





# Udarako lantxoak

Iñigo Urrutia / Kazetaria

**K**osovoko sarraskia amaitu da oraingoz, baina zauriak odola dario eta nork daki noiz arte iraungo ote duen estatubatuarrek eta europar morroiek egin dituzten basakerien ondorioek. Guda txukun honek, albo-gaitzak sortzetik kanpo, ezer gutxi konpondu du. Golkoan gertatu zen bezala -orduan Saddam-ek gorpuzten zuen deabrua-, Kosovoko erasoan esan ziguten Milosevic zela helburu bakarra, behar genuen deabru berria. Baina deabru hau ohean hilko da.

Bitartean, azken belaunaldiko teknologia militarra probatu dute eta txikizioa ikaragarria izan da, nahiz eta telebistaz, gehienbat, Milosevic-en armada eragindako kalteak ikusi. Eta non daude milaka bonben emaitzak? Badi-rudi azken hileotan Balkanetan zeru suturik ez dela izan. Dena den, laster berreraikuntza lanak hasiko dira, Europari esker, noski. Txikitu lehenik eta dirua eskaini gero, (zein baldintzatan?) nazioa berreraikitzeko.

Kosovarrak defenditu behar genuen, baina denbora aurrera doan heinean, kurduekin gertatu zen bezala, poliki-poliki historiaren zabortegirantz doaz. Beraien eskubideen gainetik badaude beste hainbat arrazoi askoz ere

*"Milosevic-en astakeriak izenik gabekoak izan dira, baina antzeko egoerak leku askotan aurkitu ditzakegu. Urrutira joan barik, Turkian eta Marokon. Kasu hauetan, Europaren "lagunak" dira, nahiz eta oinarrizko eskubideak ia ezezagunak izan hango hiritarrentzat"*

indartsuagoak direnak. Adibidez, NATOren esku hartze berria. Eraso pil-pilean zegoen momentuan, nazioarteko armada bakarrak erabaki zuen New Yorken zeintzuk izango ziren bere etorkizuneko betebeharrak; hitz bitan esanda, NATOko buruzagiek argi laga zuten (denak bateginik Etxe Zurian) edozein lekutan erasotzeko ahalmena dutela, horrela egoki iruditzen zaienean.

Milosevic-en astakeriak izenik gabekoak izan dira, baina antzeko egoerak leku askotan aurkitu ditzakegu. Urrutira joan barik, Turkian eta Marokon. Kasu hauetan, Europaren "lagunak" dira, nahiz eta oinarrizko eskubideak ia ezezagunak izan hango hiritarrentzat. Beraz, NATOri udako lantxoak jartzen hasteko garaia da. Lehenengo eta behin, Rabat hankaz gora jarriko dugu; jarraian, Estambulerantz begiratu-ko dugu eta, azkenik, Pekinerantz. Nahikoa lan herrien eta hiritarren eskubideak defenditzeko. **B**

■ barruan



**Vicky Bascones**

Turismo Bulegoko arduraduna

*"Egun batzuk lasai ibiltzeko toki ezinhobeak ditugu gure inguruan"*

8.



**Carlos Arnaiz**

BKEko presidentea

*"Lan eginez gero, BKE aurrera atera daitekeela erakutsi dugu"*

21.



**Aintzane Bideluze**

Ormazabal hotelekoa

*"Bergara bisitatzeko arrazoi bat? Politxa da eta hiriburuetatik gertu dago"*

29.



## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1897.** Uztailaren 3an Sierbeta-ko monjak etorri ziren Bergara-ra. Lehenengo egoitza Masterrreka kaleko 8. atarian izan zuten, Udalak utzitako etxebizitza batean. Leku txikiagia zutela eta, handik urte batzuetara, 1904an, Artekalea 21era eta Goenkalea 15era aldatu ziren.

**1994.** Uztailaren 2an erbesteko euskal kulturaren bultzatzaile zen Justo Garate Arriola bergarra hil zen Argentinako Mendozaan.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 25

4-24-25-26-35-44 (osag.19/itz.8)

#### Astelehena 28

5-23-28-35-36-40 (osag.8/itz.0)

#### Martitzena 29

17-38-49-29-45-31 (osag.26/itz.7)

#### Eguaztena 30

29-26-36-4-15-37 (osag.9/itz.8)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 26

1-4-16-30-47-48 (osag.49/itz.2)

#### Domeka 27 Saritzarra

5-13-27-37-44-47 (osag.15/itz.8)

### ONCE

**Eguakitza 25:** 75.829 (038 seriea)

**Astelehena 28:** 43.208

**Martitzena 29:** 77.266


**Eguaztena 30:** 07.580

### BESTE BATZUK

**Bedelkar:** 126.837 (Venezia-ara bi pertsonarentzako bidaia)

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan hodeiz estalita agertuko zaigu zerua eta euria egin dezake, baina ostarteak zabalduko dira han hemenka. Tenperaturak behera egingo du. Domekan zerua estalita izango dugu, baina eguraldiak zertxobait hobera egingo du.

## Ilargiaren aldiak



Ilbete: ekainak 28



Ilbehera: uztailak 6



Ilberri: uztailak 13



Ilgora: uztailak 28

## Eguzkia

Domeka, uztailak 4



Sortu: 06:52



Gorde: 21:50

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Eguena 24	34	10	15,9
Eguakitza 25	32	15	-
Zapatua 26	26	14	-
Domeka 27	22	11	-
Astelehena 28	26	13	-
Martitzena 29	28	13	-
Eguaztena 30	26	17	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Asmautako

Inoiz, baten batek gezurrak esan dituela diogunean, norbaitek, erdi brometan erantzun ohi du: "gizurrak ez, asmautakuak".

- I, pisto, ain kontau duan ori ze zuan, gizurra ala asmautakua?



JOSU OKINA

## Farmaziak

### Eguakitza 2:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Zapatua 3:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Domeka 4:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Astelehena 5:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Martitzena 6:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Eguaztena 7:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguena 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

Domeka 4: Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85



# zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




# MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



# zorion agurrak



**Ainhoa Menor**  
Uztailaren 7an  
10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Arantza Atxa**  
Uztailaren 4an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Florinda Rodriguez**  
6an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Miren Urtaza**  
Uztailaren 8an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Amama eta izebak.



**Susana Morcillo**  
Uztailaren 2an  
13 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Maialen Leturia**  
Uztailaren 2an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Josu Zalakain**  
Uztailaren 2an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitona-amonak.



**Uxue Lazkano**  
Uztailaren 5ean  
4 urte. Urte askota-  
rako! Etxekoak,  
Andoni eta Irati.



**Mirian Moreno**  
Uztailaren 4an  
7 urte. Urte askota-  
rako! Gurasoak eta  
Christian.



**Jon Ander Roman**  
Uztailaren 7an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Aita eta ama.



**Ane Kortabarria**  
Uztailaren 2an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Kristina Tejada**  
Uztailaren 8an  
17 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.

Datorren asteko alean **UZTAILAREN 9a eta 15a**  
bitartekoen zorion agurrak argitaratuko dira.

## hildakoak

### BERGARA

#### Juan Aranguren Pildain

Ekainak 23, 94 urte

#### Angeles Lazpiur Gisasola

Ekainak 26, 82 urte

### ANTZUOLA

#### Desideria Rodriguez Cerrato

Ekainak 24, 76 urte

#### Martin Zabaleta Larrea

Ekainak 26, 70 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

#### Maria Berroia Erce

Ekainak 15

#### Danel Campaña Horrillo

Ekainak 22

## mezak

#### Santa Marina

Domekak: 13:00.  
Zapatuak: 20:00.  
Lanegunak: 19:30.

#### San Pedro

Domekak: 09:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:00.

#### Osintxu

Domekak: 11:30.

#### Elosu

Domekak: 13:00.

#### Ubera

Domekak: 10:30.

#### San Juan

Domekak: 11:00.

#### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

#### Labegarieta

Zapatuak: 19:00.

#### San Lorentzo

Zapatuak: 19:00.

#### Angiozar

Domekak: 11:00.

### URTE-MEZAK

#### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 13:00etan.

#### San Pedro

Hileko 3. astean, zapatuan 19:00etan.

#### Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta  
Lanegunak:  
07:30.

#### Mizpirualde

Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 11:45.

#### Mariaren

Lanegunak: 11:45.

#### Lagundia

Domekak: 10:30.

#### Ubera

Lanegunak: 09:00.

#### Antzuola

Domekak: 11:30.

#### San Prudentzio

Zapatuak: 20:30

#### Lanegunak: 19:30.

#### Uzarraga

Domekak: 10:00.

#### Elgeta

Domekak: 12:00.

#### Zapatuak: 20:30.

#### Lanegunak: 09:00.

## PESA autobusak

### Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.  
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

### Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 28:40.  
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

### Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:25, 08:35; 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35; 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\*.

Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\*.  
Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino)

### Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15.

Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15.  
Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

### Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.  
Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

### Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.  
Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

### Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45.

Zapatuak: 20:45, Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

### Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10.

Zapatuak, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

### Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.  
Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

### Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.  
Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

### Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35.

Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35.  
Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

### Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00.

Zapatuak: 09:00, 18:00.  
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

### Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45.

Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45.  
Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

### Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30.

Zapatuak: 07:00, 16:30.  
Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

### Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10.

Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.  
Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

### Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00.

Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.  
Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.


# MUJIKÀ FERRETERIA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



## MUSIKA

► **Bad Manners, Iskanbila eta Espias Secretos** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **Madrialeko Flauta Orkestra** bihar, zapatua, 22:30etan Elorrioko Elizpean.

► "Berriz blues sessions", **Tapia eta Leturiarekin** domekan, hilak 4, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupen.

► **Mikel Urdangarin** egue-nean, hilak 8, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupen.

► **Dover** taldearen kontzertua eguakitzean, hilak 9, Jam-en.

## ERAKUSKETAK

► **Kirol argazkiak** Kultur Etxean, uztailaren 11ra arte.

► **Josean Bilbaoren mar-goak** Nahikarin.

► **Jesus Mari Lazkanoren "Denborez" margo erakus-keta** Bilboko Rekalde aretoan.

## LEHIAKETAK

► **Txiste lehiaketa** Soraluzeko San Andres auzoan uztailaren 10ean. Gaueko 9etarako afaria iragarri da eta afal ostean erromeria Eztanda taldearekin. Goizaldeko ordubatean hasiko da txiste lehiaketa.

## JAIAK

### San Martzial ospakizuna

**Domekan, goizeko 9:30etatik aurrera**

Urtero bezala, San Martzial ospakizunak ikusmin handia piztu du herrian. Udalak 280 mahai inguru alokatu ditu azken bi asteotan eta domekan San Martzial inguruko zelaia jendez gainezka izango dira. Programari dagokionez, ospakizunak bihar, zapatua, hasiko dira. Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainero taldeak lagundutako buruhandi eta erraldoien kalejira egingo da 19:00etan eta ondoren bonba japoniarrak izango dira Plazan. Eider eta Oihana trikiti taldearekin dantzaldia bi saiotan banatuko da: lehenbizikoa 20:00etatik 21:30etara bitartean izango da eta bigarrena gaueko 11etatik aurrera.

Domekan, Erletxo taldeko dultzaineroekin, Zumarragako trikitalariekin, Los Incansables txarangaekin eta Udal Txistulari Bandarekin alborada izango da goizeko 9:30etan. Orđubete beranduago gudi igoerari hasiera emango

zaio eta 11:30etarako Meza Nagusia iragarrita dago ermitan. Mezaren ondoren, Xamatx taldearen dantza emanaldia izango da eta ohizko aureskua dantzatuko da. Jarraian Narbaiza eta Egileor bertsoan arituko dira eta gustoko dutenek abesti herrikoiak kantatzeko aukera izango dute kantina ondoan. Bolatokia egun osoan izango da zabalik. Kantina Amnistiaren Aldeko Batzordeari adjudikatu zaio eta Senideak taldeak jardungo du txoznan.

Bazkalostean, haur jokuak izango dira 16:00etan eta herri jolasak 18:00etan hasiko dira. Sokatirako probetan gehienez zortzi talde (6 laguneko taldeak) izango dira lehian eta izen-ematea 17:00etan zabalduko da. Txinga probak ere jokatuko dira eta 19:30ak aldera Aranzabal Orkestrarekin erromeria izango da.



Ohizko aureskuak ikusmin handia sortuko du aurten ere.

Izen-ematea San Andres elkarrekin egingo da, egun berean, gaueko hamabiak aurretik. Parte hartzen duten guztientzat oilaskoa eta txanpaina izango dira eta gainera bi sari nagusi banatuko dira: 15.000 pezeta-koa txiste onena kontatzen duenarentzat eta 10.000 peze-

takoa plazentziar kutsua ondoren erabiltzen duenarentzat.

► **Aramaioiko Sagitario Saria**, bidaiari haundien literatura lehiaketa. Edozein pertsonak har dezake parte eta egileak bidaiari zehar bitzakoak kontaketa literario batean aur-

keztu beharko ditu. Euskarazko zein gaztelarazko lanak onartuko dira. 945 44 50 16.

## IKASTAROKAK

► **Udako Euskal Unibertsitatea**, Miarritzen

**T**  
textil  
agirrezabal  
**A**

### ALFONBREN ALMAZEN BERRIA

- Bertako eta inportazioko alfonbra eskusiboak
- Jenerazio berriko kolekzioa

### DENDA BERRIA

- Telak metroka eta pisura
- Etxerako behar duzun guztia: gortinak (guk geuk egindakoak), izarak, izarak egiteko ohialak, nordikoak, tapizak...

### ORDUTEGIA

asteleheneetik  
zapatua:  
10:00-13:00  
eta 16:00-20:00.

### Den-dena almagazenteko prezioetan

**BERGARA** • Renault-en ondoan • IAT/ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

Telefonoa eta faxa:  
**943 76 72 52**



uztailaren 5etik 9ra eta Iruñean uztailaren 19tik 30era. Udalak ikastaroen matrikula ordaintzeko laguntzak ematen ditu. 943 77 91 66.

► **Karate klaseak doan** uztailean, 7 urtetik gorakoentzat. Argibideak Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

► **Edizio ikastaroa** (50 ordu) irailaren 27tik azaroaren 4ra bitartean, astelehen, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Matrikula: 16.000 pezeta. Plaza mugatuak. 943 77 91 58.

## DEIAK

► **Pazkuetako kontzertuetan** jo zuten herriko taldeen bilera matitzenean, hilak 6, 19:00etan Kultur Etxean.

► **Futbolin txapelketa** bihar zapatua, hilak 3, 17:00etan Ugarrixan, LAMek antolatuta.

► **Euskal presoan aldeko gose greba** uztailaren 3tik 10era Donostian, Presoen aldeko Euskal Herriko Gazte Ekimenak deituta.

► **Txino jokoaren txapelketa** eguakitzean, hilak 9, 23:00etan Canalejas tabernan. Izen-ematea (300 pezeta) ordu-bete lehenago itxiko da.

► **Udalak** jakinarazi nahi du **trasteak biltzeko kamioia** hileko lehen eguaztenez

pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

► **San Joxeperen mendi irteera** eguaztenez, uztailearen 7an. Ibilbidea: Bergara-Zumarraga-Ategorrieta-Ulia-Pasaia-Erreterria-Bergara. Irteera goizeko 8etan Beheko Estazioetik. 943 76 21 40.

## JAIK

► **Azoka Nagusiko jaiak Elgetan.** Gaur, eguakitza, Kiñu taldearekin erromeria, 23:00etan eta gauerdian Gaztetxean kontzertua. Zapatuan, hilak 3, XII. Intxortako igoera 11:30etan, ordubatean herri kirolak, 15:30etan buruhandiak eta 16:30etan play-back lehiaketa 13 urte arteko gaztetxoentzat. Ume eta gurasoentzat txirindulari lasterketa 18:30etan, 19:30etan zezen txikiak eta pottokak, 20:30etan Oria txaranga eta 22:00etatik aurrera nagusientzat play-back lehiaketa. Gaueko 11etatik aurrera La Parranda taldearekin erromeria eta gauerdian Ferixa Nagusiko Bolo Txapelketa. Ondoren, 1:30etan, rock kontzertua Gaztetxean. Domekan, hilak 4, feria zabalteza 9etan, 18:00etan Elgetako dantzarien emanaldia eta lau t'erdiko pilota txapelketaren finala. Zazpitan Jainaga eta Narbaizarekin erromeria eta 20:00etan rock kontzertua Gaztetxean. Goizeko ordubietan, sardinaren lurperatzea.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Ejecucion inminente

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Buscando a Eva

Eguakitza: 22:00.  
**Arlington road**  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### ARRASATE. Monterron

##### Torrente, el brazo tonto de la ley

Eguena, aire zabaleko zinea: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### La sombra del faraon

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Flores de otro mundo

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

##### Trabajo basura

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

#### AZKOITIA. Baztartxo

##### Gloria

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
**Todo sobre mi madre**  
Zapatua: 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

##### Todo sobre mi madre

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### EJECUCION INMINENTE

**Zuzendaria:** Clint Eastwood.

**Aktoreak:** Clint Eastwood, Isaiah Washington, Lisa Gay Hamilton.

Steve Everett (Eastwood) ikerkuntza kazetaritzan diharduen erreporteroa dugu. Alkoholikoà izateaz gain, bere emaztearekin ere arazoak ditu eta bere izaeragatik New York Times egunkaririk kaleratu zuten. Orain, Oakland Tribune egunkarirako lan egiten du. Frank Beechum presoaren (Washington) exekuzioaren gaineko erreportaia gitea aginduko diote eta bere lana erabakiorra izango da Beechumi leporatzen dioten hilketa argitzeko...



### TORRENTE

**Zuzendaria:** Santiago Segura.

**Aktoreak:** Santiago Segura, Tony Leblanc, Javier Camara, Neus Asensi.

Arrasateko Udalak aire zabaleko zine emanaldien programazioari ekin dio. Datorren ostegunetan Santiago Segurak zuzenduriko lehen filmea ikusteko aukera izango da. Torrente polizia faszista, matxista hutsa, arrazista eta alkoholiko dugu eta, hala ere, umorea da nagusi filme arrakastatsu honetan.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!  
Zatoz eta informa zaitetz!

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63



**Joan zen astean ireki zen Udal Turismo Bulegoa. Daftur enpresak jestionatuko du zerbitzua datorren irailaren 5era bitartean. Bien bitartean, Bergarara hurbiltzen diren bisitariak herriaren inguruko informazioa jasotzeko aukera izango dute bertan. Turismo Bulegoan Vicky Bascones bilbotarra eta Idoia Altuna plazentziarra izango dira lanean.**

**G.** Aste Santuan ere Turismo Bulegoan lanean izan ziren. Bisitariak zeren bila datoz Bergarara? Zelakoa da hona etortzen den turismo mota?

**E.** Aurtengo Aste Santuan inoiz baino kontsulta gehiago egin ziren Turismo Bulegoan eta Euskal Herri-kanpokoen artean katalanak eta madrildarrak izan ziren nagusi. Normalean gazte bikoteak dira hona hurbiltzen direnak eta kasu gehienetan turismo mota ezberdina egin nahi duen jendea izaten da. Kotxez etortzen dira gehienak hona etortzeko komunikabideak ez baitira oso aproposak bestelako garraiobideak erabili ahal izateko. Turismo kulturala deritzonak gora egin du azkenaldian eta jendea jauregiak, monumentuak, museoak eta horrelakoak ikustea gero eta gehiago gustatzen zaio. Hemen baditugu etxe eta jau-regi ederrak eta paisaia ere oso erakargarria da. Oporretan egun batzuk lasai ibiltzeko toki ezinhobeak ditugu gure inguruan.

**G.** Turismoa jasotzeko azpiegiturak egokiak dira?

**E.** Orain jasotzen dugun jende kopuruarentzako nahikoa dagoela uste dut. Egundak batzuk pasatzera etortzen diren bisitariak ez dira asko, jeneralean bidean to-

VICKY BASCONES

Turismo Bulegoko arduraduna

*“Egun batzuk lasai ibiltzeko toki ezinhobeak ditugu gure inguruan”*



Vicky Bascones, Turismo Bulegoko sarreraren ondoan.

katzen zaielako egiten dute bisitatxo bat hona. Bi hotel eta pentsioarekin badago turistak jasotzeko aukera eta, momentuz behintzat, ez dut uste gehiago behar denik. Hala ere, hona etortzen diren kanpotarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen ahalegindu behar dugu, berriro etortzeko gogoia izan dezaten.

**“Turista askok Bergara herri industrial dela uste du eta harritu egiten dira etxe dotoreak eta ingurune berdeak ikustean”**

**G.** Hona etortzen direnek ezagutzen dute Bergara lehendik?

**E.** Euskal Herriko hotel, turismo bulego eta horrelakoetan Bergarari buruzko foiletoak banatzen ditugu eta asko dira foiletoa ikusi eta hona etortzeko animatzen direnak. Oñatik ere bisitari asko jasotzen ditu eta Bergara Oñatitik gertu dagoenez, jende askori bidean geratzen zaio. Eta ez dut uste hona etortzeaz damutzen direnik.

**G.** Turismoa asko aldatu da azkenaldian.

**E.** Aldaketa izugarriak izan dira azken urteotan, bai; lehen jende gehiena Mediterraneoara edo Hegoaldera joaten zen, eguzkitan egotera. Gaur egun, berriz, Galiziak, Extremadurak edota Euskal Herriak indar handia hartu dute; jende askok ez du gehiengoak egiten duena egiten nahi izaten. Euskal Herria modan jarri da azkenaldian zerbitzuen sektorean egindako inbertsioei esker eta atzerri-ke ere gero eta jende gehiago dator. Beti ere aberasgarria da elkartruke hori (ekonomiaren aldetik zer esanik ez) eta espero dezagun etorkizunean turismoa indartzea gurean.

**G.** Zuek zeuk zein arrazoi emango zenituzke jendea Bergarara etortzera animatadin?

**E.** Esango nieke Bergara diferentea dela, ez dela jendeak uste duen bezalakoa. Jende askok herri industrial baten irudia dauka eta harritu egiten dira horrelako etxe dotoreak eta ingurune berdea ikustean, ez dakite historia handia dagoela hemen. Uda hona etortzeko garai ona da: eguraldi onarekin, turismo kulturala hondartzarekin tartekatu daiteke, Bergara oso ondo kokatuta baitago. **B**



# Gallastegi alkate aukeratuko du bihar, zapatua, Udalbatza berriak

Jakiteko dago erabateko gehiengoa lortuko duen ala ez

**Bihar, zapatua, eguerdiko 12:00etan osatuko da Udalbatza berria eta datozen lau urteotarako alkatea aukeratuko da.**

Alkate izateko hautagaien artean erabateko gehiengoa inork lortuko ez balu, boto gehien lortzen dituen hautagaia aterako litzateke alkate. Bi hautagaien artean berdinketa gertatuko balitz, ostera, ekainaren 13ko udal hauteskundeetan boto gehien lortu zituen hautagaia izendatuko litzateke alkate.

## BOTOA ERABAKITZEKE

Bergarako Udalean ordezkakuta dauden lau taldeetatik, EHk, PSE-EEK eta PPK, eguen goizean oraindik erabakitzeke zuten zapatuan botoa nori eman. EAJ-EA koalizioa eta EH aste honetan bildu dira eta bi aldeak elkarrekin gobernatzeko prest azaldu dira, baina oraindik ez dute besteak beste, ez programaz eta ezta organigramaz ere berbarik egin. Hitzegiten jarraitzeko jarrera agertu dute bai EAJ-EA koalizioak eta baita EHk ere. Beraz, ia ziurtzat eman daiteke datozen lau urteotan EAJ-EA-EHren arteko udal gobernua izango dugula eta PSE-EE eta PPKo bi zinegotziak oposizioan izango direla.

Zapatuan botoa nori eman oraindik erabakitzeke zuen eguen goizean Bergarako EHk. Halere, eguazten arratsaldean, EAJ, EA eta



Herenegun, eguaztenean, egin zen legealdiko azken Osoko Bilkura. Bihar, zapatua, Udalbatza berria osatuko da.

EHko zuzendaritzek adostu zuten nazio mailan hiru indar abertzaleetako zerrenda botatuenak errespetatzea. Honenbestez, esan dezakegu Bergarako EHko zazpi zinegotziek Victoriano Gallastegiri emango diotela botoa zapatuan eta, beraz, EAJ-EA koalizioaren hautagaiak erabateko gehiengoa (15 boto) lortuko duela alkatea aukeratzeko bozketan.

## UDALBATZAREN MAHAIA

Zapatuko Osoko Bilkuran lehenbizi mahaia osatuko dute Udalbatzako zinegotzi gazteenak eta zaharrenak, hau da, Maider Larrañagak (EH) eta Felipe Altunak (EAJ). Ondoren, zinegotzi

guztiei kredentzialak banatuko zaizkie eta gutxienez bederatzi zinegotzi badaude (guztira 17 dira eta guztiak bertan egotea espero da), Udalbatza berria osatuko da. Ondoren, zinegotziek karguari zin egingo diote eta, jarraian, alkatea aukeratzeko bozketa egingo da. Bozketa sekretua da eta zinegotzi bakoitzak edozein hautagairi eman ahal izango dio botoa.

Ekaineko udal hauteskundeetako emaitzen ondoren, Bergarako Udalean honela banatu ziren zinegotziak: EAJ-EAk 8 zinegotzi lortu zituen; EHk, 7 eta PSE-EEK eta PPK bana. Beraz, inork ez du gehiengo absolutua eta bihar arte ez dugu

jakingo Victoriano Gallastegi (EAJ-EA), Jesus Mari Garrantanok (EH), Alvaro Esparzak (PSE-EE) eta Luis Martinez Esproncedak (PPk) zenbat boto lortuko dituzten eta ezta baten batek gehiengo absolutua lortuko duen ala ez. Edozein modutan ere, esan dugun bezala, indar politikoen buruek adostu dute udal eta diputazio guztietan zela jokatu.

## GALLASTEGI ALKATE

Beraz, esan dezakegu Victoriano Gallastegi (EAJ-EA) izango dela boto gehien lortzen dituen hautagaia eta, beraz, bera izango da Bergarako alkatea datozen lau urteotan, azken zortzi urteetan bezala. **B**





Sasoi honetan ohikoa bihurtu den irudia aurten ere errepikatuko da eguaztenean, San Fermin egunean.

## Eguenetik hil bukaerara arte, herriko 405 ume udalekuetan

### Uztaileko goizetan hainbat jardueratan arituko dira

**Eguenean jarri ziren** abian aurtengo udalekuak. Uztail osoko goizak (hamarretatik ordu batera) jolasean igarotzeko aukera izango dute aurten ere 6 urtetik 11 urtera arteko herriko neska-mutikoek.

Jarduerak antolatzeko toki arazoak direla eta, plazak mugatuak izaten dira, baina aurten sekula baino neska-mutiko gehiago arituko dira Xipizarok antolatutako udalekuetan. Iaz 350

lagun ibili ziren (1997an baino 50 gehiago) eta aurten, berriz, 405 izango dira: "ezin izan ditugu nahi zuten guztiak hartu, baina edozein modutan ere sekula baino gehiago hartu ditugu, aurten Miguel Altuna ikastetxe berriko instalazioak ere laga baitizkigute" esan digu Ane Laskurainek, Xipizaroko arduradunetako batek. Miguel Altuna, San Martin eta Martinez Irala ikastetxetan antolatzen dituzte jar-

duerak, barruko geletan zein kanpoaldean, eta horrez gain, hainbat irteera egingo dituzte herriko zenbait tokitara, igerilekuetara, kiroldegira, e.a. eta kanpora ere bai.

Neska mutikook zaintzen 40 begirale izango dira, hamar umeko begirale bat. Haur bakoitzeko 5.000 pezeta ordaintzen da matrikula; bi anai-arreba izanez gero, 9.000 eta hiru izatekotan 12.000 pezeta.

### Kiroldegia domekan itxita eta uztailean ordutegi berria Udal Liburutegian

**Domekan** San Martzialgo erromeria dela eta, Labegaraietako kiroldegia itxita izango da egun guztian zehar. Udan kiroldegia ez da neguan beste erabiltzen eta, bestalde, domekan herritar asko eta asko San Martzialen izango direnez, kiroldegia itxi egingo dute. Bestalde, uztailean zehar goizez bakarrik izango da zabalik Udal Liburutegia. Hortaz, astelehenetik aurrera, goizeko 8etatik ordubata arte izango da zabalik; arratsaldez itxita izango da.

### Irailean joan egingo dira Mizpirualde egoitzako lekaimeak

**Mizpirualden** dau-den Karidadeko Alabak ordenako 9 monjak Bergararik joan egingo dira irailean. Gaur egun 4 baino ez dira bertan lan egiten dutenak eta gehienak jubilatzeke adinean daude. Karidadeko Monjak 1858. urtean heldu ziren Bergarara eta 1982tik Mizpirualden daude.

**URRATS**  
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK**  
GAUETAN

Ibargarai 4  
943 76 52 92

**GASTON Y DANIELA**

Oihal batek aldatzen du dena

**BERGARA**

Kruz Gallastegi 3, 943 76 07 37



# Herriko hezkuntza zentruen artean 46 milioi pasa banatuko ditu Udalak

**Iazko urtarrilean Udal Gobernu Batzordeak onartutako irizpideak kontutan izanda, aurten herriko ikastetxeei 21 milioi pezeta banatzea erabaki zuen gobernu taldeak 1999ko urte hasieran eta horrela jaso zen aurtengo udal aurrekontuetan.**

Kopuru hori herriko sei ikastetxeren artean banatuko da aurten: Aranzadi ikastola, Mariaren Lagundia ikastola, Miguel Altuna, Ipintza institutua, San Martin ikastetxea eta Angiozarko eskola. Orain 10.500.000 pezeta banatuko zaizkie eta gainontzeko erdia urte amaieran.

Bestalde, herriko beste ikastetxe edo zentruen artean 25.284.121 pezeta banatuko ditu Udalak. Honako hauek jasoko dute laguntza: Haurtxoa haurtzaindegia, Aransgi, Aspace, HHI-EPA, UNED eta Musika Eskola.

Lehenengo lauei laguntza-zen erdia ordainduko zaie orain; beste biei, UNEDi eta Musika Eskolari, hileroko banatzen zaiei dagokien zatia.

Hortaz, aurten 46 milioi pezeta pasa banatuko ditu Udalak herriko 12 hezkuntza zentruen artean.

## BANAKETA, IKASLE KOPURUAREN ARABERA

Herriko sei araututako ikastetxeen artean banatzen diren 21 milioiak eskola bakoitzaren ikasle kopuruaren arabera banatzen dira. Beraz, ez da kontuan hartzen, esaterako, ikastetxe publikoak ala pribatuak diren edota beste erakunde batzuetatik diru laguntzarik jasotzen duten ala ez.

Bestalde, herriko gainontzeko hezkuntza zentrueri banatzen zaizkien diru laguntzei dagokienez, UNEDen kasuan ikastetxearen aurrekontu osoaren %10 ordaintzea dagokio Bergarako Udalari. Urrutikako uniber-

## IKASTETXEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK, 1999

IKASTETXE ARAUTUAK	21.000.000 PTA
Aranzadi Ikastola	6.818.088 PTA
Mariaren Lagundia ikastola	5.212.426 PTA
Migel Altuna	1.977.400 PTA
Ipintza institutua	5.070.054 PTA
San Martin ikastetxea	1.811.298 PTA
Angiozarko eskola	110.734 PTA

ESKOLA EZ ARAUTUAK	25.284.121 PTA
Haurtxoa haurtzaindegia	1.500.000 PTA
Aransgi	250.000 PTA
Aspace	250.000 PTA
HHI-EPA	200.000 PTA
UNED	9.084.121 PTA
Musika Eskola	14.000.000 PTA

**GUZTIRA 46.284.121 PTA**

tsitatearen Bergarako zentruko patronatua hiru erakundek osatzen dute: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutzak eta Bergarako Udalak. Diputazioak aurrekontu

osoaren %63,61 ordaintzen du, Kutzak %26,39 eta Bergarako Udalak, esan bezala, %10. Aurten Bergarako Udalari 9.084.000 pezeta jar-tzea egokitu zaio.

## BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

## IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



☎ 943 76 20 61

## OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 943 76 71 19

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



# Berrigara

374 zenbakia.  
1999ko uztailaren 2a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetzatza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondeo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### SAMINEZ

Osintxuko euskaldun baten hitz galdu eta sentikor batzuk.

Guk badaukagu, edo horrelakoren bat, lur bat gurea bezala izan duguna; hau lur hau Iparralde da. Denek esaten dute maite dutela baina..., ez gaude beren gobernuko tokietan eta eskatzen diogu gauza ezinezko bat, zeren hemengo dirua, nik dakidala, hara joaten da. Eskatzen diogu diot. Autoari gasolinarik ez bota eta etengabe ibiltzea eskatzea bezala delako dirurik ez jarri eta euskaldunak izatea eskatzea.

Batedon batek esango du hori ez dela legezkoa, baina nik esango nuke: noiztik daude kodigoak, legediak eta horrelako zirriborroak lege naturalaren gainetik?

Uste dut utzi behar diogula tontokeriei eta zerbait egin behar dugula gure Ipa-

rraldean, bestela ez da izango gure Iparralde, eta nahi edo nahi ez, zerbait hori dirua da. Bestela, Atharratze-ko Jean Paul edo Haritz Parisera joango dira polizia lana egitera eta Maddalen (zer, euskalduna ez?) ahal duena egitera, agian emagalduren lana.

Agintari jaunari edo tokatzen zaionari hau esaten dionak, giputz euskaldun batek, garbi du ezin dugula lo egon.

Eta nire galderak honako hauek dira: etikoa al da hego posibledun batek iparra, nahiko txiroa den iparra, bakarrik uztea?; euskalduntzat al dauzkagu? (nik bai); ba al dago inor horrelako gazte galera jasan al duenik? Ahal baduzue erantzun, tokatzen zaizuenok.


Eta Nafarroa (arragoa)-eta zer? Hitzak. Euskadi egi-ten gabiltza! ...hitzak.

G. Azkarate

### HARRERA ORDUTEGI BERRIA

Uztailaren zehar, udako ordutegia dela eta, BERRIGARAKO erredakzioa goizeko 8etatik arratsaldeko 3ak arte egongo da zabalik jendeari harrera egiteko.

## tira biraka: unai azkarate





■ atrebentzia ezpada

## Eguraldi pronostikua jarraitzen dozu? Informaziño fidagarria dala uste dozu?



**Sabin Zelaia**

Pello Zabala entzuten dot irratixan baina ez dotsat inportantzia handirik emoten eguraldiari. Berdin dost zein eguraldi eitten daberen, gutxi irtetzen garelako.



**Mari Karmen Fernandez**

Telebisiñuan jarraitzen dot eguraldiko informaziñua urte guztian zehar. Gutxitan asmatzen dabe eta hobe da irten aurretik, badaezpada, zeruari begiratzia.



**Shandy Lamont**

Interesatzen jat baina ez daukat denbora asko telebista ikusteko eta ulertzeko ere zailtasunak dauzkat. Ondo dago ideia bat hartzeko, ez da guztiz fidagarria.



**Mertxe Elkorobarrutia**

Bai, edonora joaten banaiz nahiago dot eguraldi pronostikua jakin. Pello Zabala entzuten dot. Hala ere, askotan ez naiz fidatzen eguraldiko informaziñuakin.



**Abdelkari Ayyadi**

Bai, jarraitzen dot eguraldiko informaziñua, astebukerarako planak egiteko etabar. Beti ez dabe asmatzen baina gustatzen jat zer egingo daberen jakitea.



**Jose Felix De Benito**

Egunero ez dot jarraitzen, bakarrik telebistan ikusten dot hurrengo egunerako zeozer antolatu badogu. Egixa esateko, ez naiz gehixegi fidatzen.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.



### SAN ANTONIOKO BIDEGURURUTZEA

**Javier Garciak** deitu zigun astelehenean, San Antonion egiten ari diren obregatik protesta egiteko. Erreka bideratzeko lanak hasieran pentsatutakoa baino gehiago luzatu dira eta hori gutxi balitz trafiko arazoak konpontzeko gauza gutxi egin dela esan digu Javier Garciak. Egunero lanera sartu eta lanetik irtetzeko orduetan kotxe ilada luzeak sortzen ei dira San Antonio inguruan. Behin baino gehiagotan ordulaurden inguru galdu izan du Javierrek San Antonioko bidegurutzean eta ez zaio logikoa iruditzen. Trafikoa azkartzeko neurriak hartzea beharrezkotzat jotzen du Javierrek. Eta lanak lehen bait lehen amaitzeko eskatzen du.

■ ikuspuntua: **jon ander bengoa**

### Horrela funtzionatzen du

Badira geure gizartean inoiz ulertu ez ditudan hainbat arlo, hala nola, zerga sistema, banku-etxeko kreditoak, herritarrok ditugun laguntza sozial ezberdinak eskuratzeko egin beharrekoa..., eta aseguru konpainien funtzionamendua. Ikuspegi orokorra baino ez dut, eta guztia ulergaitz egiten zait informazio edota interes ezaren ondorioz.

Aseguruen inguruko ezjakinaren aurrean mesfidantza sentitzen nuen, eta orain urtebete, konpainiaren eta kaltetu baten arteko harremana gertutik sufritzean, mesfidantza



izateko arrazoiez ohartu nintzen. Elikagai enpresa ezagun baten aseguru konpainiarekin izandako esperientziak irakatsi zidan "guztiak horrela funtzionatzen duela".

Lehenbizi lasaitasunezko hamaika gomendio entzun behar izan genituen, denbora aurrera joan ahala trabak besterik ez; azkenik, guztia beste batzuen esku jarri beharra.

Prozesu honetan hiru sentimendu bereiztuko nituzke. Hasiera batean galduta sentitzen zara (ezjakinaren ondorioz), gero

amorrua baino ez duzu sentitzen (norbera erruduna balitz bezala sentiarazten zaituzte), eta azkenik, tristea bada ere, etsipena, norberaren interesak defenditzeko bide bakarra epaiketara jotzea dela ikusten baituzu.

Diru kontuak tartean direnean, sentimenduek lekurik ez dute. Bost axola kalte-tuaren egoera edo nola sentitzen den, helburua ahalik eta diru gutxien eman edota prozesua atzeratzea denean, horretarako gezurrak erabili behar badira ere.

Sistema honen hurrengo katea abokatu batengana jo eta epaiketaren zain geratzea da, eta ditxosozko "honek guztiak horrela funtzionatzen du" sinistera heltzen zara. **B**





## Eskulan erakusketa kalean

Herritar ugari hurbildu zen zapatu eguerdian **Bedelkar** elkarteak San Martin eta Simon Arrieta plazetan antolatutako eskulan erakusketa ikus-terera. Bertan parte hartu zuten taldeek urtean zehar egiten duten lana erakutsi zuten jendeaurrean eta benetan lan bikainak ikusi ahal izan ziren. **Jarduneko trikiti eskolakoak** ere fin aritu ziren giroa alaitzeko orduan. Bestalde, **Veneziara joateko egindako zozketan 126.837 zenbakia** izan zen sarituta. Boletoaren jabeak bi gaueko hotela, gondolan paseoa eta 100.000 pezeta eskuratuko ditu.



## Letania errezzatuz San Martzialera

Jende askok hartu zuen parte eguaz-tenean, San Martzial egunean, letania errezzatuz San Martzialera egindako igoeran. Emakumeak gehiengoak izan arren, gizonak ere ikus zitezkeen. Par-

taideak **zazpi eta erdiak pasatuta** abiatu ziren Santa Marinatik eta zor-tziak eta laurdenak aldera **Xabier Azkoitia** parrokoak meza eman zuen ermitan. Askok ermitatik kanpo jarraitu

behar izan zuten elizkizuna. Meza os-tean **txokolate gozoa** banatu zen bil-dutako guztien artean eta ohizko "ros-killak" erosi ondoren partaideek he-rrirako bidea hartu zuten.



## Isunak jaso dituztenen aldeko zozketa

Aldez aurretik agintaritzari adierazi gabeko hainbat manifestazio eta kontzentraziotan parte hartzeagatik **Herrizaingo Sailak zigortutakoen alde** sosak batzeko antolatutako zozketako saria **Eider Gabilondori** (1.678 zenbakia) tokatu zaio. Joan zen astean egin zen sari banaketa. **Etor Larrañagak**, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideak, eman zuen saria, **Joxean Arruziaga** Soraluzeko preso ohiak larruaren gainean tailatutako Picassoren "Guernica" koadroaren erreplika. Argazkian, Etor eta Eider koadroari eusten.



## Motozaleak Montmelon

Bergarako **Zapelaitz motozale elkar-  
teko lagunak** eta inguruko herrietako beste "motero" batzuk **Kataluniako Sari Nagusia** ikusten izan ziren duela bi aste Bartzelonan, Montmeloko zirkuituan. Ostiralean Bergaratik irten eta zapatuko entrenamenduak eta domekako lasterketa ikusi ondoren, herrira itzuli ziren. 500 cc.ko proban **Crivilleren** garaipen ikusgarria gertutik jarraitzeko aukera izan zuten. Hori afizioa, hori!!



JOSU LETURIA



## Aranzadi Ikastolako jaialdia

Aranzadi ikastolako **ikasleek ikasturte amaierako jaialdia** eskaini zuten joan zen ekainaren 18an Novedades aretoan. Gurasoei zuzendutako jaialdi honetan haur eskolatik batxilergora arteko ikasleek hartu zuten parte eta bertaratuek primeran pasatu zuten han ikusitakoarekin. Orain, ondo pasa oporrak eta datarren ikasturtera arte!!



## Patinetan ibiltzeko tokirik ez

**A**rgazkian duzuen mutiko koadrila BERRIGARAKO erredakziora hurbildu zaigu, Bergaran patinetan ibiltzeko toki aproposik ez dagoela adieraztera. Kalean, espaloian zein errepidean, ez omen diete lagatzen ibiltzen ez udaltzainek eta ezta hainbat herritarrek ere. Horregatik, **Labegaraietan, Matxiategiko aparkaleku berrietan** edo beste edozein tokitan patinetan ibiltzeko porlanezko "U" bat jartzeko eskatu nahi diete alkate berriari. Ea agintariek kaso egiten dieten.




## Errekan otsailetik

Irakurle batek goiko argazkia ekarri digu BERRIGARARA, otsailetik **Abraín errekan** dagoen kotxearen egoera salatzen. Antza denez, oraindik ere inork ez du ezer egin arazoa konpontzeko. San Blasera bidean dagoen Abraín errekan inguruan jende gutxi ibili arren, batek baino gehiagok susto ederra hartuko zuen kotxea ikustean. Udaltzaingoaren arabera, ibilgailuaren jabeak datozen egunetan erretiratu beharko du kotxea errekatik. Grua berezi bat erabili beharko dute.



■ asteko menua: **zabala jatetxea**

## Erreboiloa labean



RAFA ZABALA eta JAVI RUEDA  
*Zabala jatetxeak*

### OSAGIAK (4 lagunentzat)

- Kilo eta erdiko erreboiloa
- 2 patata (ez handi, ez txiki)
- Gatza
- Olioa
- Perrexila
- Bi berakatz ale
- Baso bat ur edo arrain salda

### PRESTAKETA

- Erreboiloa ondo garbitu eta gero gatza bota.
- Patatak zuritu eta xerra finetan moztu.
- Labearen plaka osoa olioarekin ondo busti eta patata xerrak bertan zabaldu.
- Patatei gatza bota eta erreboiloa gainean ipini.
- Baso bat ur edo arrain salda, eta berakatz txikituak erreboiloari gehitu.
- Labean 35 edo 40 minutuz 170 gradutara eduki.
- Mahaira ateratzeko, ontzi zabal batean patatak eta erreboiloa ipini.
- Bukatzeko, labeko plakan geratu den saltsari perrexil txikitua gehitu.
- Saltsa erreboiloaren gainetik bota.
- Eta prest jateko!

■ adituen esanetan

## Bisoi europarra

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

Bisoi europarra (*Mustela Lutreola*) ibaiertzetan bizi den ugaztun haragijalea da, erbinudea baino piskat haundiagoa. XIX.ean espezie hau oso zabaldua zegoen Europan, Iberiar Penintsulako iparraldetik hasi eta Errusiako Uralak bitartean. Desagertzen hasi zen eta gaur egun espezie honen bi poblazio txiki besterik ez dira geratzen: Bielorrusian, Estonian eta Errusian bata eta Bodele eta Errioxa bitartean bestea.

Oso kontserbazio egoera larrian dago bisoia. Desagertzeko arrazoiak ez dira ezagutzen, kutsatutako ibaietan ere nahiko ondo moldatzen baita. Beterako desagertzeko arriskua dagoenez,

Aranzadi Zientzia Elkartek hemengo bisoi poblazioa aztertzeari ekin dio, Eusko Ikaskuntzaren eta Diputazioko Basafauna zerbitzuaren laguntzaz. Gipuzkoako zein errekan geratzen den ikusiko da eta emisoreen bitartez jarraitzea egingo zaie geratzen diren bisoiei, euren inguruko informazio zehatzagoa izan dezagun.

Gipuzkoan, lehen bisoia Tolosan harrapatu zuten, 1950. urtearen inguruan. Bergaran, San Prudentzian, beste bat agertu zen 1960ko hamarkadan eta duela lau urte errepidean hilda agertutako beste bat Seminarioko Museoa gordetzen da gaur egun. **B**

■ bergarako gordailutik

## LEHENENGO JARLEKUEI BEGIRA

Imanol Sorondo

Udaletxean batzarra dago 1714.eko irailean. Agirretar Joakin Inazio alkate jaunak proposamen bat aurkezten du: udaletxeko iskribauak ez daitezela alkatearen ezkerretara aldameneko jarlekuan eseri, udaletxearen beraren bileretan izan ezik; orain arterakoan iskribau horiek gizon zintzoak izan omen direla, baina gerora horrelakoak ez izatea, edo "arraza txarrekoak" izatea gertatu omen daitekeela; bere ezkerretara aldamenean esertze horrek galerazi omen die udaletxeko kontseilukide batzuei Elizara agintarien modura joatea.

Azkargortatar Juan Antoniok, udaletxeko kontuak eramaten dituenak, ez dela ezertxo ere aldatu behar dio, iskribauak alkatearen ezkerrean eseri omen direla beti. Herrian lau iskribau daude, eta horietako bat da udaletxean dagoena, Beldarraindar Inazio. Honek lauen izenean Azkargortaren arrazoiak azpimarratu ditu, xehetasun gehiagorekin gainera. Alkateak eta berekin zeuden udaletxeko kideek jarraitu dute proposamenari eusten, baina alferrik, ez da aurrera atera.

A benduaren 8an Amabirjina-ren eguna da eta Bergarako herri guztia elizan gertatuko denaren zain dago. Sartu da Beldarrain iskribau jauna eta... alkatearen ezkerreko jarlekuan eseri da.

A benduaren 14an, Errekaldek eta Egurendar Manuelek, udaletxeko erregidore kideak, bere dimisioa aurkeztu dute. Alkateak, berri, bere aginte makilarekin jarraitu du eta, bere burua zuritzearren edo errejidore kideen alde, agian, gertatutako guztia idaztiaz jasotzeko eskatu dio iskribuari. **B**



# Zinegotzi karguari agur

## Zortzi zinegotzik beste hainbati lagako diote tokia

Bihar, zapatua, Udalbatza berria osatuko da, 12:00etan Pleno aretoan. Joan zen ekainaren 13ko udal hauteskundeetan izandako emaitzen arabera, EAJ-EA koalizioak 8 zinegotzi, EHk zazpi eta PSE-EEK eta PPK ordezkari bana izango dute Bergarako Udaletxean. Aurpegi berriak izango dira zinegotzien artean eta azken urteotan lanean ibilitako beste batzuk kargua utziko dute. Azken hauen iritzia jaso nahi izan dugu.



Javier Gabilondo

ARTXIBOA



Luis Abajo



Juan Mari Garitano

ARTXIBOA

**JAVIER GABILONDO, EAJ**  
57 urte. 16 urte zinegotzi lanetan

1.- Dedikazioa egon da eta atea guztientzat zabalik izan dira. Beste gauza bat arazo guztiak soluzionatzea izaten da eta beti kezkatxo hori geratzen zaizu, baina orokorrean pozik nago egin dugun lanarekin. Lehenbizi gobernuan (Imanol Bolinaga alkate zela), gero oposizioan (Jose Luis Elkororen garaian) eta azken 8 urteotan berriz izan gara gobernuan. Lehenengoetan aurrekontu motza genuen, 600 milioikoa, eta gaur egun, berriz, 3.000 milioi ingurukoa. Politikoki denetik izan dugu, irainak eta arrautzak jasotzea ere tokatu zaigu baina beti ere herriaren alde izan gara lanean. Egindako lana hor dago eta, beharbada, herritarrek baloratuko dute ondoen.

2.- Gai dezente daude destakatzeko 16 urtetan baina, beharbada, arau subsidioarioak, herri bat bertebratzeko funtsezko arauak eta Udaletxearen berrietea nabarmenduko nituzke.

3.- Borondate eta lanerako jarrera izateko eta beti ere herritarren interesei lehentasuna ematea. Alderdien arteko

**1. Udaletxean egindako lanaren balorazioa. Zelako urteak izan dira zuri tokatu zaizkizunak? Merezki izan du zinegotzi izateak?**

**2. Udaletxean egon zaren denboran egin diren lanetatik, zein lan nabarmenduko zenuke?**

**3. Udalbatza berriari zer eskatuko zenioke?**

konbibentzia emateko eta ez ahazteko norberaren alde lan egin beharrean herriarendako lan egiten dela.

**LUIS ABAJO, EAJ**  
53 urte. 12 urte zinegotzi lanetan

1.- Lehenengo legealdian oposizioan egotea tokatu arren, positiboa izan zen niretzat. Gero gobernuan zortzi urtez izan ginen. Kritikatxo bat egiteko zera esango nuke: hainbeste denbora karguan egotea gehiegizkoa izan daiteke eta ideia berriak sartzeko, beharbada komenigarria litzateke muga jartzea, zortzi urtekoa adibidez. Egoera

politiko asko bizi izan ditugu, une gorrak ere bai eta uste dut Lizarra-Garaziko Akordioarekin aro itzaropentsua zabaldu zela abertzaleontzat.

2.- Kultura mailan lan egin dut nagusiki eta musikak herrian bultzakada handia izan duela nabarmenduko nuke. Bestalde, faltan bota dut gazte jendearekin gauza gehiago egitea. Gazte lokalaren kontuan, beharbada, ez da lortuko beraiek planteatzen dutena baina, konponbide batera hel daiteke.

3.- Herri mailan lan egiteko eta beharrezkoa denean politika alde batera lagatzeko, herritarren interesak nagusi izateko.





Xabier Zabaleta



Agurne Barruso



Ane Miren Olabarria

**1. Udaletxean egindako lanaren balorazioa. Zelako urteak izan dira zuri tokatu zaizkizunak? Merezi izan du zinegotzi izateak?**

**2. Udaletxean egon zaren denboran egin diren lanetatik, zein lan nabarmenduko zenuke?**

**3. Udalbatza berriari zer eskatuko zenioke?**

**JUAN MARI GARITANO, EA**  
57 urte. 8 urte zinegotzi lanetan

1.- Nahiz eta gauza asko egiteko asmoarekin sartu, dena betetzeko aukerarik ez da egoten, politikan mugak dirrelako eta demokrazian gehiengoak agintzen duelako. Hala ere, EAk gauza asko aportatu ditu azken urteotan eta egin den lanarekin pozik nago. Lehenbiziko lau urteetan oposizioan egon ginen eta oposizio ona beharrezkoa dela uste dut, bestela gauzak "biziatzeko" arriskua dago. Nekeza da oposizioan lan egitea. Azken lau urteetan Hirigintzako ardura izan dugu Jose Antonio Etxeberriaren eskuetan eta gauzak ondo egin ditu, atzeratuta zeuden hainbat kontu aurrera ateraz. Udalean lan egitea oso interesgarria da eta jende berria hor sartzera animatu nahi nuke, Administrazioa ezagutzeko aukera ona da.

2.- Gai konkretu bat nabarmendu baino komisio gehienetan ondo lan egin dela esango nuke, nahiz eta norbera ados ez egon aurrera atera diren gai guztiekin.

3.- Alderdi guztiak harremanetan jartzea eta Lizarra-Garaziko Akordioaren inguruan lan egitea. Alderdi guztiek hor sartzeko aukera daukate eta PSE-EE eta PP Akordioa ondo aztertzea gonbidatuko nituzke.

**XABIER ZABALETA, EAJ**  
53 urte. 5 urte zinegotzi lanetan

1.- Egindako lanaren balorazioa, nik uste dut herritarrek egin beharko luketela. Ni oso gustora egon naiz Udaletxean lanean, lan pozgarria izan da eta pertsonalki guztiz aberasgarria. Hasierako urteak, beharbada, gogorragoak gertatu ziren, batez ere Plenoetan mozio politikoak aztertzen zirenean oposizioko taldearekin eztabaida gogorrak izan genituelako. Hala ere, taldeen arteko ikuspuntua desberdina izan arren, pertsonalki ez da inolako arazorik izan eta esperientzia polita izan da.

2.- Egin ez dena destakatuko nuke. Kirol batzordean lan egitea tokatu zait eta igerilekuak berritzeko proiektua hor dago. Aurten, espero dugu, egitasmoa bukatzea eta ea datorren urtean gai horri heltzen zaion. Gertatu da, beste gai batzuei lehentasuna eman zaiela (Industrialdea eta beste hainbat) eta igerilekuena geroko laga behar izan dela. Bestalde, Udal Pilotalekua berreskuratzea eta indartzea eta Angiozarko frontoia estaltzea lan aipagarriak izan direla uste dut.

3.- Denon artean ondo konpontzea eta herriaren alde lan egitea. EH gobernuan egotea posible ikusten dut, eta ez

hori bakarrik, nik neuk gustora ikusiko nuke hori. Zer geratuko den? Ikusi egin behar.

**AGURNE BARRUSO, HB**  
30 urte. 4 urte zinegotzi lanetan

1.- Egia esan, ez digute eman lan egiteko aukerarik, oso gogorra gertatu da. Egiten saiatu garena atzera bota digute. Bergarako Udaletxeko jarrera Euskal Herriko egoera politikoari lotuta joan denez, urte gogorak izan dira. Eta azkenengo urtean Euskal Herriak bizi izan duen aldaketa ez da Udaletxean somatu. HBk egindako lana Udaletxean garatzeko aukerarik ez dugu izan. Dena den, esperientzia ona izan da.

2.- Euskara plana martxan jarri da eta Udaletxean horrelako plan bat edukitzea inportantea da. Bestalde, hirigintza arloan egin da lan gehien, "zementoaren" inguruan, eta hori ez da nire debilidadea. Hala ere, ez naiz gauza arlo horretan egindako lana baloratzeko.

3.- Eskaera zehatza dauakgu HBren partetik: Udaletxe partehartzailea izatea eta herriko taldeei eta herritarrei beraien parte hartzeo aukera ematea. Benetan Udaletxe demokratikoa izatea.

**ANE MIREN OLABARRIA, HB**  
44 urte. 4 urte zinegotzi lanetan

1.- Talde politiko bezala oso baztertua egon gara. Pertsonalki ez naiz gaizki sentidu baina talde politiko bezala bai. Askotan pentsatzen dut lau urteak pikutara joan direla; sartu ginen lan egiteko gogoarekin eta, azkenean, ez dugu aukerarik izan. Nahiko egoera gogorra izan da. Bestela, lau urte haue-tan denetik egon da, baina lan egiteko oso aukera gutxi izan dugu.





Jose Ramon Etxebarria



Iñaki Gabilondo

2.- Guretako UNEDeko Euskara Departamentua ixtea oso gogorra izan zen. Sartu berri ginen Udaletxean eta hasierako gaietako bat izan zen. Indar askorekin sentitzen ginen nahi haren alde lan egiteko eta niretako, behintzat, oso gogorra izan zen hura ez mantentzea.

3.- Lehen momentutik guk eskatu genuena; gobernuan parte hartu ahal izatea. Azken finean, herriaren portzentaia handia garelako gehienbat. Bestela, baztertuta sentitzen gara, bai gu eta bai gurekin etorri direnak eta apoiatu gaituztenak. Lan egiteko aukera bakarra gobernuan egotea da; oposizioan minorian ezin da gauza handirik egin.

**JOSE RAMON ETXEBERRIA, HB**

46 urte. 4 urte zinegotzi lanetan

1.- Bi gauza desberdinduko nituzke; alde batetik, momentu gogorrak bizi izan ditugu Euskal Herrian (Miguel Angel Blancoren hilketa, presoan egoera eta beste hainbat); eta, bestetik, Udaletxean ez dugu izan parte hartzeko aukera handirik. Batzordeetan egon arren, gure iritzia ez dute kontuan izan, eta esan daiteke kanpoan egon garela. Hainbat Plenotan ere eztabaida gogorak izan dira. Hala ere, zinegotzi izateak merezi izan duela esango nuke, herriaren alde lan egiten duzulako eta, bestalde, zuk zeuk ere gauzak ikasten dituzulako.

2.- Boteprontoan, Industrialdea martxan jartzeko egindako lana destakatu nuke. Hala ere, gure programan jasota genituen gauza asko ezin izan ditugu behar bezala aztertu.

3.- Nik uste dut alderdi gehienak elkarlanean aritzen badira, gauza gehia-

go egin ahal izango dira eta, beraz, partaidetza zabaltzea eskatuko nuke. Jendearen lana eta ideia berriak aprobetxatzeko baliogarria izan daiteke. Eta gai konkretuak aipatuz, jeneralean gazte arloa alde batera lagata dagoela ikusten dut eta horri heltzea beharrezkoa ikusten dut. Kultura mailan herriko dinamika bat sortzea ondo legoke.

**IÑAKI GABILONDO, HB**

55 urte. 2 urte zinegotzi lanetan

1.- Oposizioan egon gara eta nahi-ko egoera tristan, baztertuta sentitu

garelako. Lan egiteko aurrerabide handirik ez digute eman eta egoera horrek ez du laguntzen lan egiteko orduan. Ahal izan duguna egin arren, ez dute gure iritzia eta gure lana kontuan izan eta alde horretatik desepzioa hartu dut. Lana egiteko modua aldatu beharra ikusten dut, EAJren pareko zinegotzi kopuru bera izan arren, HB gobernuz kanpo geratu delako. Hori ez da bidezkoa. Legealdi berrian gauzak aldatuko direla espero dut. Hala ere, herriaren alde lan egitea aberasgarria izan da.

2.- Haziendako batzordean hartu dut parte eta bertan ez da arazo handirik egon, gure botoa ematea besterik ez dugu izan. Zerbait nabarmenezkotan, hirigintza arloan lan polita egin dela uste dut.

3.- Alderdi guztiek gobernuan parte hartzeko aukera izan dezatela, ez orain arte izan den moduan. Alderdi bakoitzak, izan duen boto kopurua kontuan izanik, partizipazio maila bat izatea. **B**

**...eta ongi etorri**

**Hauk dira aurreko legealdian Udaltzanean izan ez, eta azken hauteskundeetan aukeratuak izan diren zinegotzi berriak**



**Kontxi Irizar**  
EAJ/EA



**Juan Jose Arrieta**  
EAJ/EA



**Iñigo Alberdi**  
EAJ/EA




**Maider Larrañaga**  
EH



**Aitor Goiti**  
EH



**Yolanda Juaristi**  
EH



**Martin Guridi**  
EH



**Luis Martinez Espronceda** PP







- Zilarra
- Piercinga, minik gabe, akupuntura elektronikoko bidez
- Tatuaje artistikoa
- Botatzeko materiala
- Pertsonal tituluduna




ARROPA ERE  
BADUGU.  
%100 HIP HOP



Biteri etorbidea 15.

**Arrasate.** 943 77 02 69.


BILBO



# BILBO garraioak

Bergara-Bilbo  
eguneroko  
zerbitzua

Partikularrendako  
eta  
industriendako



BERGARA



Leizariako  
San Lorentzo 19, 3C.  
Telefona:  
943 76 35 74.  
Mugikorra:  
609 479 443



Carlos Arnaiz, BKEko presidentea

# "Lan eginez gero elkarteak etorkizuna duela erakutsi dugu"


**Joan zen eguakitzean egin zen Bergara Kirol Elkarteko bazkideen batzar orokorra. Zuzendari-tza Batzordeak proposatutako puntu guztiak onartu zituzten bertarutako bazkide apurrek. Carlos Arnaiz elkarteko buruarekin izan gara.**

**G.** Urtea eman duzu BKEko buru. Iaz, sasoi honetan ezkor zinen elkartearen etorkizunari buruz. Gaur, pozago eta itxaropentsuago ikusten zaitugu.

**E.** Bai, gaur egun askoz ere baikorrago naiz. Kirolaren zein ekonomiaren aldetik, orain dela urtebete baino hobeto gaudela esango nuke. Futboleko talde nagusiak mailaz igo da eta, oro har, elkarteko sail guztiarako talde denek lan ona egin dute. Bestalde, elkartearen zorra gutxitu egin dugu eta aurten futbol sailak 177.994 pezetako superabita izan du. Diru sarrerak handitu egin dira: publizitatearen kontua, esaterako, nahikoa lagata zegoen eta hortik diru dexente lortu dugu. Beraz, lanerako prest egonez gero elkarte aurrera atera daitekeela eta aurrekontu orekatua eginez gero irabaziak izan ditzakegula erakutsi dugu.

**G.** Une honetan zein da elkartearen egoera?

**E.** Sail bakoitzak bere aldetik egiten du lan eta bere egitura autonomoa dauka. Beraz, gastuak eta sarrerak bakoitzak bere aldetik kudeatzen ditu. Bestalde,



Karguan urtebete eman eta gero, iaz baino baikorrago da Carlos Arnaiz.

orain dela urte asko eskatu zen prestamoa ordaintzeko 600.000 pezeta inguru gertzen zaizkigu. Horixe da gaur egun elkarteak duen zorra, baina laister kitatuko dugu.

**G.** Datorren urtera begira, bazkide kuota eta partiduetako sarrerak igotzea erabaki zen joan zen asteko batzar orokorrean.

**E.** Bai, bazkide babeslearen urteko kuota 12.000 pezetara igoko da; ikasle eta jubilatuek 3.000 pezeta ordainduko dute eta gainontzeko bazkide guztiak 8.000 pezeta. Denek izango dute tribunara sartzeko aukera. Talde nagusiak hiru-

garren mailan jokatu du aurten eta, ondorioz, gastuak handitu egingo dira, batez ere arbitraiengatik: preferente mailan, 20.000 pezeta ordaintzen zitzaizkien epaileei eta hirugarren mailan, berriz, 50.000 pezeta inguru ordaindu beharko zaizkie. Bestalde, beheko mailetan kanpoko partiduetara autoz joaten jarraituko dugu, baina Tolosa baino urrunagoko bidaietan autobusa jarriko dugu. Hala ere, hirugarren mailan egoteagatik sarrerak ere handiagoak izango dira: Realetik eta Espainiako Futbol Federaziotik diru gehiago etorriko zaigu eta, bestalde, parti-

duetako sarrerak 1.000 pezeta kostako dira datorren urtean.

**G.** Nola geratuko da futbol talde nagusia?

**E.** Jesus Mari Biain eta Lauri Askargorta izango dira entrenatzaileak. Bestalde, Franco Eibarrera doa eta Errasti, berriz, Ondarroako Aurrerara. Aitor Osorok, berriz, uko egin dio Ondarroako Aurrerak egin dion eskaintzari eta nahiago izan du Bergaran jarraitu. Eskertzekoa da egin duen ahalegina. Bestalde, atezain bat eta bi aurrelari ekarriko ditugu eta Andueza Realeko jubeniletan aritu den bergararra eta Oskar Maiztegi lehen ere Bergaran ibilitakoa geurekin arituko dira. Horrez gain, jubeniletatik bost jokalarri igoko dira.

**G.** Hirugarren mailari eutsiko diozue?

**E.** Horixe da helburua eta ilusio handiarekin ekingo diogu lanari. Mailaz jaisuten bagara ez da ezer gertatuko, baina mailari eusteko ahaleginak egingo ditugu, hori ziur. Denboraldia abuztuaren 29an hasiko da, baina oraindik ez zaigu egutegia heldu.

**G.** Zer falta zaio BKEri?

**E.** Lanerako jendea. Horrez gain, sail guztiez arduratuko litzatekeen zuzendaritza batzorde bat ondo legoke. Orain, sail bakoitzak bere futntzionamendu autonomoa du eta ni futboleko presidentea naiz batik bat. Horregatik diot, ondo legokeela geure gainetik beste talde bat izango balitz. **B**



# Bergara Hiria pilota finala gaur

## Herri artekoan bergararrak 3. postua eskuratzen saiatuko dira

**Gaur**, eguakitza, arratsaldeko 19:00etatik aurrera jokatuko dira Bergara Hiria pilota sariari dagozkion bi finalak. Promesa mailan, Muguruza bergararra eta Mendiluze, Erauskin eta Regigiren kontra neurtuko dira. Afizionatu mailan, berriz, Iker Muruamendiaraz eta Iñurrategi, Arbizu eta Errastiren kontra. Iker Muruamendiaz, bestalde, Elgetako lau t'erdiko finalera iritsi da eta domeka arratsaldean ere norgehiagoka gogorra izango du Leizaren kontra Elgetan. Herrien arteko txapel-

ketari dagokionez, Bergarak Azkoitiaren kontra jokatu ondoren senior mailakoek besterik ez zuten garaipena lortu 22-16ko emaitzarekin. Gauzak horrela, hirugarren eta laugarren postuak lortzeko partidua jokatu du Aretxabaletaren kontra datorren astean. Hirugarren postua 200.000 pezetarekin sarituko da eta laugarrena, 125.000 pezetarekin. Herri arteko txapelketari dagokion finala, datorren zapatuan Anoetan jokatu da Azkoitia eta Hernaniren artean.



Bergara Hiriko iazko txapeldunak, Urretabizkaia eta Gastezi.



Amaia Nuñez,  
Agustín Toledo,  
Nerea Egaña eta Arkaitz Zabala.

## Espainiako Atletismo Txapelketan

**Bergarako Aspaceko ordezkariak** San Fernando herrian (Cadiz) jokatu den gutxituen Espainiako Atletismo Txapelketan izan dira astebukaeran.

Amaia Nuñez markinarrak pisu jaurtiketa proban urrezko domina lortu du, Nerea Egaña ermuarrak brontzeko domina eskuratu zuen aulkiko 200 m.ko proban (100 m.tan laugarrena izan zen), Arkaitz Zabala eibartarrak zilarrezkoa irabazi zuen aulkiko 200 m.ko proban, Sonia Medina ermuarra bigarren sailkatu zen 100 m.ko lasterketan eta, azkenik, Agustín Toledo bergararra pisu jaurtiketan seigarren izan genuen. Bostak astelehenean itzuli ziren Cadiz aldetik, nekatuta egindako bidaia luzeagatik baina pozik lortutako emaitzekin. Gipuzkoako Dordoka taldeak, guztira, 11 domina eta 75.000 pezetako saria irabazi zuen.

Irabazi zuen aulkiko 200 m.ko proban, Sonia Medina ermuarra bigarren sailkatu zen 100 m.ko lasterketan eta, azkenik, Agustín Toledo bergararra pisu jaurtiketan seigarren izan genuen. Bostak astelehenean itzuli ziren Cadiz aldetik, nekatuta egindako bidaia luzeagatik baina pozik lortutako emaitzekin. Gipuzkoako Dordoka taldeak, guztira, 11 domina eta 75.000 pezetako saria irabazi zuen.

## Beti Busti elkartearen Saturran-Deba VI. itsasbidaia

**Beti Busti** Elkartek, Gipuzkoako piraguismo federazioarekin batera, Saturran-Deba itsasbidaia antolatu du hilaren 11rako. Irteera Saturran-rango hondartzan eman go zaio goizeko 10:30-etan. Izen-ematea egun berean egin ahal izango da. Eguerdi aldera, kaiak surf erakusketa ikusteko aukera izango da Deba-ko hondartzan.

**KONDE**



Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**


ORDUTEGIA:  
8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



## I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



## partiduak

## NESKAK

## Eguakitza 2

## Kadeteak

19:00: Aldrebesak-Baleike

19:00: Las 43-EKA

20:00: Azkenak-Aupa

## Nagusiak

20:00: Zutaz Pentsatzen-Elgetako Jaixon Berton

21:00: Lai Lai Lai-Potzu Ta Zapaburuak

21:00: Biko-Pentol's Team

## MUTILAK

## Astelehena 5

19:15: Mongatxurra-Amilotx

20:30: Black &amp; Decker-A Ze Flaxa La Guipuzcoana

## Martitzena 6

19:15: Fatxurtu-Toyhu

20:30: Manitou-Fo Fo Fo

## Eguaztena 7

19:15: Ezinleike-Gore

20:30: La Juve-Mokolotov

## Eguena 8

19:15: Altos Pornos-Angiozar

20:30: Euskal Beccia-Txokokuak

## emaitzak

## MUTILAK

VTA-Fatxurtu	5-2
Osintxu-Mongatxurra	0-4
Altos Pornos-Black & Decker	1-3
Etengabe-Game Over	1-10
Mokolotov-Angiozar	1-2
Amilotx-Fo Fo Fo	3-3
Matxakategi-Osintxu	4-3
Toyhu-Txokokuak	2-0

## NESKAK

Azkenak-Aldrebesak	1-2
Baleike-Las 43	3-1
EKA-Aupa	3-0
Elgetako Jaixon Berton-Pentol's Team	3-1
Potzu Ta Zapaburuak-Zutaz Pentsatzen	0-2
Onenak-Lai Lai Lai	1-2

## jokoz kanpo

Oihana Iñurrategi  
ZUTAZ PENTSATZEN

**G.** Orain arte erakutsitagoatik oso ondo zabilzate.

**E.** Bai, lehen postuan gaude. Lehenengo urtea da eta guri dagokiguna baino maila bat gorago gaudela kontuan hartuz, taldeak joko ona erakutsi du. Txapelketa irabaziko dugula uste dut. Gustora nabil.

**G.** Finala zeinen kontra jokatzea gustatuko litzaizuke?

**E.** Oso gustora jokatua dudana partidua Bikoren kontrako izan zen. Talde ona da.

**G.** Txapelketa zer iruditzen zaizu?

**E.** Aurten neska gehiago ari da jokatzen. Igartzen da futbola modan dagoela.

**G.** Entrenatzaile gogorra daukazu.

**E.** Txapelketa oso serio hartu du. Areto futboleko dihardugun jokalaria asko gaude taldean eta ondo ezagutzen dugu. Urtean zehar berarekin aritu gara entrenatzen eta orduan bezalaxe orain ere gogor egiten digu. Noizbehinka bronkak ere entzun ditugu. Txapelketa hau lasai eta ondo pasatzeko dela uste dut. Areto futboleko denboraldia amaitu da dagoeneko.

**G.** Federatuak ez diren jokalaria ere ondo aukeratu ditu entrenatzaileak.

**E.** Taldera ez du edozein jokalaria ekarri. Irabazteko asmoz dabil.

## gora eta behera



## VTA eta Arloteak

VTAk bost gol egin zizikon bigarren tokian dagoen Fatxurtu taldeari. Arloteak taldea, txapelketan puntu gehien dituen taldea da eta hurrengo taldearekiko alde handiena lortu duena. Nesketan, Zutaz Pentsatzen eta Baleike dira lider hamabina punturekin.



## Puntu bakarra ere ez

Mutiletan, Txokokuak, La Juve eta Etengabe eta nesketan, Pentol's Team eta Azkenak dira jokatua diren lau jardunaldietan puntu bakarra ere lortzera iritsi ez direnak.

## sailkapenak

## A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	12	4	16	1
2. Fatxurtu	6	4	11	7
3. Euskal Beccia	6	4	10	9
4. VTA	4	4	10	12
5. Toyhu	4	4	9	12
6. Txokokuak	0	4	3	18

## B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurra	10	4	14	1
2. Amilotx	7	4	7	5
3. Fo Fo Fo	7	4	15	14
4. Manitou	6	4	12	8
5. Matxakategi	3	5	10	16
6. Osintxu	1	5	8	22

## C multzoa

	P	J	GA	GK
1. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	10	4	9	4
2. Angiozar	9	4	16	3
3. Black & Decker	9	4	10	7
4. Altos Pornos	6	4	10	9
5. Mokolotov	1	4	5	10
6. La Juve	0	4	7	24

## D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Gore	9	3	12	2
2. Bildurbarek Opel Lam	6	3	7	7
3. Game Over	4	3	10	4
4. Ezinleike	4	3	5	5
5. Etengabe	0	4	5	21

## Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	12	4	10	1
2. EKA	9	4	15	3
3. Aldrebesak	7	4	8	13
4. Las 43	5	4	10	9
5. Aupa	1	4	3	10
6. Azkenak	0	4	2	12

## Neskak, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Zutaz Pentsatzen	12	4	18	4
2. Lai Lai Lai	9	3	12	3
3. Potzu Ta Zapaburuak	4	3	8	3
4. Onenak	4	4	9	9
5. Biko	3	3	6	8
6. Elgetako Jaixon Berton	3	4	5	14
7. Pentol's Team	0	3	1	18

## golegileak

## MUTILAK

1. Igor Larrañaga	Gore	8 gol
2. Asier Rodriguez	Matxakategi	7 gol
3. Peli Iturrkastillo	Manitou	6 gol

## NESKAK, NAGUSIAK

1. Eva Alzas	Biko	6 gol
2. Rachek Olabarria	Zutaz Pentsatzen	5 gol
2. Naiara Beistegi	Lai Lai Lai	5 gol



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaiian. 10,5 milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

K. Eleizalde. 943 76 32 77.

Baserría salgai Angiozarren. 943 76 01 70.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m<sup>2</sup>. 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Estudioa Salouko Pinedan. 943 79 11 29 (lan ordutegia).

Antzuolan, Beheko auzoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, ga-

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktua  
Deiak  
Bestelakoak

rajearekin. 943 76 40 25.

**ERRENTAN EMATEKO**

Pisu amueblatua Martokan, urritik aurrera. 943 79 20 86.

Zarautz (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Apartamentua Laredon. 943 76 44 34.

Laredon, plaiatik gertu. 943 76 13 86.

Pisua alokairuan Zarautzen, udan. 943 76 04 58.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartuko genuke urtebeterako. 943 76 29 76 (Gotzon).

Pisua alokairuan hartuko nuke. 656 71 25 81.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Burdiñate. 619 80 26 06.

Ibargarai. 943 76 00 93.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Ibargarai. 943 76 44 25.

S. Lorento. 943 76 48 09.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

S. Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan. 136 m<sup>2</sup>. 943 76 08 18.

Lokala Martokan, prezio onean. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Etxeko lanak edo hau-

rrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauze. 610 01 06 19

Neska batek garbiketa lanak egin edo denda batean lan egingo luke. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.

Neskak umeak zaindu eta etxeak garbitu. Abuztuak 1-15. 943 76 04 57.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).

Haurrak zaindu edo dendan lan. Uztailean. 943 76 38 90 (Amaia).

**BI LAN-ESKAITZA**

**HERRI ALDIZKARIEN DINAMIZATZAILEA**

Aldizkarien dinamizazioaz eta Plan Estrategikoaren inplementazioaz arduratuko da. **Aurrebaldintzak**

Euskara, euskalgintza eta herrialdizkarigintza ezagutzea. Esperientzia antzeko lanetan. Gida baimena eta autoa.

**Lan baldintzak**

Urtebeteko kontratua luzatzeko aukerarekin. Egun erdiz.

**FINANTZABURU-KUDEATZAILEA**

Topagunearen kudeaketaz, administrazioaz eta harremanez arduratuko da. **Aurrebaldintzak**

Euskara eta euskalgintza ezagutzea. Esperientzia antzeko lanetan. Gida baimena eta autoa.

**Lan baldintzak**

Urtebeteko kontratua luzatzeko aukerarekin. Egun osorako.

Curriculumak eta erreferentziak uztailaren 6a baino lehen bidali

Santa Ana plaza 6  
283 pk. 48200 Durango  
Tf. 94 681 65 58. Faxes 94 620 34 82  
E-maila: topagunea@jalgi.com



**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono **Aranzadi 2 behea**  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**Dixula BOKATAK DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

**Neska behar da jangela batean zerbitzari egiteko**

943 76 20 40

**Sukaldari laguntzailea behar da**

943 76 20 40



**ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA



Haurrak zaindu uztailean. 943 76 46 32.

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

ritz egurra. 943 76 43 37.

**ESKAERAK**

Urmeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 05 55 (gauzez).

OHO. 943 76 37 94.

Peugeot 106 (SS-AN). 943 76 51 54 (gauzez).

Kutxa erregistratzailea. 607 94 13 38 (Asier).

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak uztailean eta irailean. 943 76 31 79.

Peugeot 306 TD. Aire egokitua. 943 76 32 20.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminioko. 943 76 05 88.

Mate, fisika eta kimika. Udan. 943 76 59 15.

Seat Ibiza (SS-X). Eguzki sapaia. 943 76 31 09.

Ezkontza erreportaiak egiten ditut. 943 76 13 35.

Emakume euskalduna behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. 943 76 41 28 (Begoña).

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gauzez).

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Erretratuak marrazkiz egiten ditut pastel margoekin. 943 76 44 27.

Etxeko lanetarako eta ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

**7. ANIMALIAK**

**SALGAI**

Ardi txakurkumeak. 943 76 36 14.

**EROSI**

Kitarra elektrikoa erosi nahi nuke. 943 76 27 85.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Kanpinero karro denda salgai. 943 76 64 65.

2. eskuko botoidun akordeoia. 943 76 47 48.

OHO eta DBH. Abuztuak 16-31. 943 76 25 90.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

24 hazbeteko bi mendi bizikleta salgai. Barra baxukoa eta normalduna. 943 76 15 76.

**GALDU**

Kataia eta Amabirjina-  
ren irudia duen medaila galdu nuen. Sarituko da. 943 76 40 67.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

R-11 GTL. 125.000 pta. Egoera ona. 943 76 37 82.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

**BESTELAKOAK**

Kotxedun pertsona behar da Bergara-Bilbo egiteko arratsaldeetan. 943 76 91 10.

Klase partikularrak. Deitu 943 76 17 57 telefonora (Rebeka).


Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Kanpinero "Igloo" hozkailua. 943 76 41 21.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Roller Aloha karabana. 943 77 05 22 (gauzez).

Bi ohe, idazmahai, altxariak eta apalak. Ha-



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**INSTALATZAILEA**

Gasteiz. 19869/2

**PRODUKZIO**

**ZUZENDARIA**

Ibai ezker alde. 21311/4

**IRAKASLEA**

Ibai ezker alde. 20521/1

**INFORMATIKAN**

**LIZENTZIATUA**

Deba Garaia. 21462/2

**MEKANIKOA**

Donostia. 20565/4

**INFORMATIKA**

**IRAKASLEA**

Donostialdea. 21659/2

**MEKANIKA  
TAILERRERAKO  
ARDURADUNA**

Donostia. 20566/4

**ADMINISTRARI**

**TEKNIKARIA**

Arabar Lautada. 19978/3

**BIRJARTZAILEAK, 3**

Deba Garaia. 20966/1

**OKINAK, 2**

Deba Garaia. 20969/2

**ARRAIN-**

**SALTZAILEA**

Bilbo. 20285/6

**BILTEGI-LANGILEA**

Deba Garaia. 20970/1

**HARAKINA**

Bilbo. 20287/2

**KUTXAZAINAK, 3**

Deba Garaia. 20971/1

**BITXIGILE**

**LAGUNTZAILEA**

Ibai ezker alde. 20451/6

**DOITZAILEA**

Mungia. 21310/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Gaztea behar da  
asteburuetan  
TABERNAN  
lan egiteko**

943 76 71 19

**Esperientziadun  
SUKALDARI  
LAGUNTZAILEA  
behar da**

943 76 72 00


**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**POL-POL  
Taberna**

☎ 943 76 07 78



**ARREGUI, E.M.**



- ARROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, eta abar
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
- EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38




# Santa Marinako erretaula nagusia konponduta

Erretaula nagusia paretari eusteko, hainbat lan egin dira atzealdeko egituran

**Santa Marinako erretaula nagusiari eusteko lanak joan zen maiatzean amaitu zituzten. Azken hilabeteotan erretaula nagusiaren egitura konpontzen aritu dira, erretaula eta bertan dauden Carmonaren irudiak behera etortzeko arrisku larria baitzegoen.**

Santa Marina eliza iazko irailaren 28an itxi zuten erretaula nagusia eta elizako egurrezko beste zenbait elementu garbitu, sitsaren kontrako tratamendua egin eta eliza osoa fumigatzeko. Bi hilabetez itxita egon ondoren, azaroaren 28an zabaldu zuten. Halere, aldarnioak jarri eta erretaula nagusiaren egoera aztertzen ari zirenean ohartu ziren erretaula bere tokitik mugituta zegoela eta apurka-apurka aurrera zetorrela. Goyaldean, kornisa inguruan, erretaula paretatik 120 zentimetro mugituta zegoela ikusi zuten eta arrazoia ez zen sitsak egurrean egindako kaltea; arazoa, erretaularen egituran eta honek eutsi behar zuen pisuan zegoen.

Hasierako lanak egiteko aurrekontua hiru milioi pezetakoa bazen ere, 12 milioi pezeta gastatu dituzte erretaulari eusteko lanetan. Santa Marinako erretaula nagusia, era honetako barroko estiloko beste batzuk bezala, tramo ezberdinetan eusten da. Alboetan, ezker eta eskumako mensuletan eusten da eta baita goitik beherako zutabeetan ere. Mensulak pitzatuta zeuden eta bost zentimetro zabaldua zeuden. Bestalde, goitik beherako zutabeak sitsak janda zeuden eta oinarria oso hondatuta zuten. Beraz, alboetako zein gotik beherako euskarriak oso egoera kaskarrean zeuden. Konpontzeko, egurrezko injer-



Argazkietan, erretaularen egitura nola zegoen eta egin diren lanak; hemen goian, aurkitu diren figurak.

toak egin dituzte eta egitura metaliko berria egin dute, ormigoiarekin paretara berriz ere eusteko.

## AURKIKUNTZA BITXIAK

Erretaula nagusia konpontzen ari zirela, 80 bat zentimetroko figura polikromatu batzuk topatu dituzte goyaldean. Figurok ez dira ikusten erretaulak tapatzen dituelako. Erretaula egin aurrekoak dira, 1700 baino lehenagokoak. Bestalde, bobeda ere brintzatuta dago, nahiz eta behera etortzeko arriskurik ez egon, Diputazioko teknikoek egindako ikerketak horrela baieztatzen baitu.

Erretaula nagusiaren egitura konpondu ondoren, hasieran egin behar zituzten lanak egingo dituzte. Hau da, erretaula nagusian sitsaren kontrako tratamendua egin eta Carmonaren figurak fumigatu eta garbitu. Korua, sakristia, egurrezko zoruak, atzealdeko erretaulak eta aurrealdeko lau txikiak fumigatu eta garbitu dituzte dagoeneko. Bestalde, elektrizitate sistema osoa berriztu eta berogailu eta argiteria berria jarriko dituzte. Orain arte egindako lanek 14,5 milioiko aurrekontua izan dute eta Gipuzkoako Diputazioak aurrekontu osoaren %60 ordainduko du.

**LAKET**  
gizon & emakume  
Barrenkalea 35 BERGARA

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia  
Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

**GURIA**  
**Taberna**  
Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34

**IGARO**  
✓ Kosmetika eta oparigaiak  
✓ Eder gela  
✓ Bio Solariuma  
Barrenkalea 35 Tf.: 943 76 17 27




# Errege Mintegia eta espioitza

Garai batean Bergarako Seminarioak Itsasoko Ministerioarekin zituen harremani buruzko liburua

**Euskalerrriaren Adiskideen** Elkarreko Bizkaiko komisioak "La Bascongada y el Ministerio de Marina. Espionaje, Ciencia y Tecnología en Bergara (1777-1783)" liburuaren aurkezpena egingo du datorren eguakitzean, uztailak 9, arratsaldeko 7:30etan Bergarako Udaltxeko Pleno Aretoan. Liburuaren egileak Roman Pascual eta Ines Pellon, zientziaren historia ikertzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek 1777.etik 1783.era arte egindako lanaren berri ematen digute liburuan. Xabier Maria Munibe Peñafloida konteak eta Narros markesak Itsasoko Ministerioarekin izandako harreman epistolarraren berri ematen digute, gutunen transkribaketa zehatzaren bidez. Garai hartan Europako zientzilaria, teknikaria eta espioi ospetsuenek harreman zuzena izan zuten Bergarako Errege Mintegiarekin eta itsas armadarako kainoiaik



funditzeko metodoaren bila Eskoziara egindako espioitza abenturaren berri ematen zaigu. Bergarako Errege Eskola Metalurgikoaren berri ere ematen da.

## Ska-punk gaua Bad Manners, Espias Secretos eta Iskanbila taldeekin zapatuan Jam aretoan

**Bad Manners** munduko ska talderik ospetsuenetakoa Jam aretoan izango dugu bihar, zapatua, 22:00etatik aurrera, Espias Secretos argentinarrekin eta Iskanbila arrasatearrekin batera. Ska, rhythm & blues eta punk soinuak gustuko diutuztenek badute non salto egin eta disfrutatu. Buster Bloodvessel, Bad Manners-eko abeslaria eta liderra, ospetsua da bere mingain luzeagatik,

kaskar motzagatik eta eszenarioan mugitzeko moduagatik. 70eko hamarkada amaieran sortutako taldearen kantu asko ezagunak dira mundu osoan eta, oraindik ere, ospetsuak dira taldearen zuzeneko emanaldiak. Sarrerak 1.500 pezetan salduko dira. Bestalde, datorren eguakitzean Dover talde madrildarrak bere azken lana aurkeztuko du Jam aretoan.

erreseinak



Jabier Muguruza  
**Laura kanpoan da**  
Narratiba

Jabier Muguruza musikari bezala ezagunagoa da gure artean, baina azkenaldian literaturari ere eutsi dio. Haur literaturazko bi lan eta helduentzako beste bat argitaratuak ditu. "Laura kanpoan da" honetan, bi narraziotan banatutako bitzita pusketa bana kontatzen digu: "Laura kanpoan da" eta "Mont-de-Marsan". Anaia rockero ospetsu eta liderrarenganako harremanak direla edo Laura emaztearenganakoak direla, Markosen nortasun eta sentibilitatearen bueltan eraikitako narrazioa da lehenengoa. Bigarrenean, iparraldeko taberna batera lan bila doan pianojolearen peripeziak kontatzen zaizkigu.

- Erein. 107 orr. 1.400 PTA



Su Ta Gar  
**Su Ta Gar 1987-89**  
Heavy

Su Ta Gar heavy taldearen lehenengo bi maketak disko konpaktotan bildu ditu Gaztelupeko Hotsak Soraluzeko disketxeak. "Su Ta Gar 1987-89" izenburuko lanean, Euskadi Gaztea maketa lehiaketa irabazi eta han eta hemen ezagunak egin aurretik eibartarrek grabatutako sei kanta biltzen dira. Horrez gain, "Jo Ta Ke" bideoa, Windows sistemadun ordenadore pertsonaletan ikusteko egindakoa.

- Gaztelupeko Hotsak. 1.325 PTA

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57  
Irala 1



**LASAGABASTER**

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Zuberoako ibai nagusia. 2. Gauzak gordetzen diren lekuak.
3. Buka. Opila. 4. Gainazal bati zoladura jarri. 1998an.
5. Edo. Laztana, fereka. Tona. 6. Lortzearen ondorioa. Urrea.
7. Zilarra. Kontsonante bikoitza. Interjekzioa. 8. Elkarrekin.
- Errepikatuz, gorotza. 9. Kanpo. Multzo egituratua. 10. Barazki-mota. Haiek.


**Goitik behera**

1. Alabaizunak. 2. Funtzio berdina duten gauzei balio berdina eman.
3. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendialdea. Kontsonantea. Bat. 4. Zezen zikiratua. Premia. 5. Tantalioa. Urde.
6. Zeuzkan. Bete. 7. Gabarra. Norat atzikia. Istu. 8. Emakume izena. Gizon izena. 9. Eguna. Gipuzkoako herria. 10. Ikatz bihurtua. Nor, pluralean.

**Soluzioa**

10. Ikatzua. Ak.  
 9. Data Arama.  
 7. Ala. Rat. Tu. 8. Nurra. Iker.  
 5. Ta. Txerri. 6. Zituena. Ase.  
 3. Aralar. T. I. 4. Iola. Presa.  
 1. Ugazlabak. 2. Homologatu.  
 Goitik behera  
 3. At. Sistema. 10. Kula. Eurak.  
 7. Ag. R. Tirai. 8. Batera. Ka.  
 3. Ala. Xera. T. 6. Lorpeta. Au.  
 1. Amai. Tarta. 4. Zolatua. laz.  
 1. Uhartandi. 2. Gordailuk.  
 Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar


**Zeintzuk dira galdera-marka duten bi tontorren izenak?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zenbat zinegotzi osatzen da Bergarako Udalbatza?  
 A- 16  
 B- 17  
 C- 19
2. Bergara Hiria txapelketako finala promesetan jokatu duen bergararra?  
 A- Ander Muguruza  
 B- Iker Muruamendiaraz  
 C- Jokin Etxaniz
3. Zer rock talde madrildar ospetsu izango da Jam-en hilaren 9an?  
 A- Bad Manners  
 B- Hechos contra el decoro  
 C- Dover

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zabala** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Iñaki Zangiturentzat** izan da: Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Iñakiri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Paris Enea** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA** \_\_\_\_\_

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**ZABALA JATETXEA**

Labegaraieta z/g  
 Tf. 943 76 42 57



**Auto zaharren "Loyola rallyan" bigarren tokian geratu ziren domekan Joseba Ormazabal eta Aintzane Bideluze senar-emazteak, euren Triumph Spitfire kotxearekin. Oin dala bi urteko apirilean Ormazabal hotela jarri zeben martxan.**

## Aintzane Bideluze

**Autoan, gidari ala kopiloto?**

Gehienetan kopiloto.

**Zenbat urtekin atera ziñuan karneta?**

18 urterekin.

**Autoan gehien baloratzen dozuna?**

Diseinua eta abiadura.

**Automobil marka bat?**

BMW.

**Ametsetako autoa?**

Austin Healy.

**Auto zaharren proba bat?**

Mille miglia, Italian eitten dana. Gustatu jakun ikustera joatia.

**Abiadura limitea errespetatzen dozu?**

Asko ez...

**Multarik jarri dotzue sekula?**

Gaizki aparkatzeagatik noizbait...

**Autoan egiteko irteera bat?**

Kostaldera.

**Herri bat?**

Zumaia oso politxa dago...

**Txikitan zer izan nahi ziñuan?**

Ez naiz akordatzen holako gauzekin.

**Ikasle ona ziñan?**

Txarra.

**Hoteleko lanik atseginena?**

Jendarekin tratua.

**Eta gorrotagarriena?**

Garbitzea.

**Bezeroek gehien baloratzen dabena?**

Tratu ona, familiarra.

**Izan dozuen bezerorik ezagunena?**

Andres Calamaro, Ignacio Salas eta Shanti

Idigoras.

**Hotel bat?**

"El Obispo", Hondarribian.

**Jatetxe bat?**

"Jarri-toki", Mutrikun.

**Emon udan Bergarara etortzeko**

**arrazoi bat.**

Herri politxa dala eta oso ondo kokatuta dago, hiribururuetatik gertu.

**Bestiengan gehien**

**apreziatzen dozuna?**

Naturala izatea.

**Zerekin jartzen zara sutan?**

Eguraldi txarrarekin batzutan.

**Telebistako iragarki bat?**

Canal Plusekoa, udako eskaintzarena.

**Zelako musika gustatzen jatzu?**

Countrya.

**Irakurritako azken liburua?**

"El codigo oculto de la mirada" (P. Guanir).

**Hondartza bat?**

Saturraran.

**Jantzi bat?**

Soineko bat.

**Kolore bat?**

Denak, gorrixa kenduta. Ez naiz ondo ikusten gorrixakin.

**Bidaia bat nora egingo ziñuke?**

Pragara. **B**



# BASTER

EMAKUMEZKOEN JANTZIDENDA

Zatoz eta  
aprobetxatu  
aukera!

l i k i d a z i o a

l e k u a l d a k e t a g a t i k

Telesforo Aranzadi 2. 943 76 10 08





## San Martzialen

Eguaztenean San Martzial eguna ospatu bazen ere, domekan herriko koadrila pilo bilduko da San Martzialgo erromerian. Gaur egun orain dela urte batzuk baino jendetza haundia goa biltzen da bertan. Aste honetan garai bateko erromeriako lau argazki ekarri ditugu orrialde honetara. Orduan ere herriko koadrilak eta familiak San Martzialera igotzen ziren eta ez ziren falta ohizko gurdi igoera, ondorengo meza, dantza saioa, lagunarteko bazkaria edo arratsalde parteko jolasak eta erromeria.

**Goi-ekzerreko argazkia** 1965. urtekoa da; ezkerretik hasita, honakoak dira agertzen direnak: Agustin Aranzabal "Gaztelu", Jesus Irizar, Iñaki Elguero "Takolo", Miguel Angel Irizar, Ismael Agirre, Manolo Alberdi "Elosu", Pedro Toledano eta Jesus Ignazio Ilarduia "Sarti".

**Goiko eskumako argazkia**, berriz, urte batzuk lehenagokoa da, 1947koa hain zuzen ere. Honako hauek dira argazkikoak:

Aurrean: Felipe Izuskiza, Florita Izuskiza eta Pakita Izuskiza.

Erdian: Manolo Arregi, Pablo Arzelus "Txarriduna" eta Jose Ignacio Izuskiza.

Atzean (arbola ondoan): Arantxa Arana eta Pilar Suinaga.

**Behoko ezkerrealdeko argazkian**, Angel Lazkano "Furriela"ren familia ikus dezakezue, 1957. urtean. Ezkerretik eskumara: Antonio Ezenarro, Jabier Lazkano, Karmen Azkargorta, Angel Lazkano, Serafina Arteaburu, Miren Lazkano, Garbiñe Lazkano, Elena Ezenarro eta Luis Ezenarro.

**Azken argazkia** 1973koa da eta honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik hasita: Santiago Iñarra, Mario Fernandez, Dorleta Bolinaga, Fernando Igarza "Aiskar", Elias Mujika, Glori Sampietro, "Txato" Arteaga, Angel Jimenez, Juan Carlos Fernandez, Txutxi Fernandez, Maria Jose Rodrigo, Fernando Elgarresta, Iñaki Pedrejon eta Iruene Arruti.

*Argazkiak: Pedro Toledano, Florita Izuskiza, Karmen Azkargorta eta Txutxi Fernandez*



  
**OMU**  
ZERAMIKAK



**Zeramika  
Arte  
unibertsala**




Biltegia eta bulegoak: Meatzereka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

**Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan**



# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



## BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO RKAUZ

FAGOR

## ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**

## SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**